

## Errepidea konpondu zain

Udala Diputazioaren erantzunaren zain ▶ 4



# Gaur, Tolosako Babarrunaren Pintxo Lehiaketa, Astea zabaltzeko

**TXAPELA** ▶ 11 ostalarik hartuko dute parte lehiaketan; txapela nork ondoen janzten duen erabakiko da etzi ▶ 2



Alkatea, Fronton jatebeko eta Ikatza eta Egoki tabernetako ordezkariak babarrun pintxoekin. LEIRE MONTES



MADDI SOROA

## HITZA, ikasmateriala eskolako ikasleentzat

**IKAZTEGIETA** ▶ Irakurmena landu eta bultzatzeko erabiltzen dute; iaz albisteen inguruko ariketak ere egiten zituzten ▶ 5

VILLABONA ▶

## Ados Teatroa taldeak 'Decamerone-a' antzeztuko du bihar

Gurea zineman da 22:30ean ▶ 4

TOLOSA ▶

## Emeterio Arrese gogoratuko dute gaur

Duela 50 urte hil zen euskal idazlea ▶ 3

LEITZA ▶

## Atxilokaterangatik kezkatuta agertu dira Astibiaren herrikideak

Biharko bi orduko geldialdia eta manifestazioa egitea erabaki dute ▶ 7



TOLOSAKO BABARRUNAREN ASTEA ▶

# Pintxo artean hasiko da festa

Tolosako Babarrunaren Pintxo Lehiaketak zabalduko du, gaur arratsaldean, Babarrunaren Astea; 11 ostalarik hartuko dute parte; igandean amaituko da jaia



Udaleko, Gure Kaiola elkarteko, eta ostalaritzako zenbait ordezkari, atzo, udalebxean, gaurko Pintxo Lehiaketaren aurkezpenean. L.MONTES

LEIRE MONTES

«Usainarentzat aske, ezpainetan leun, ahorako gozamen, aho sapaian leher, gorputzaren oin, gizajaren oinarri, aintzinaoen urre, gaurkoen zorion». Hitz hauekin, eta babarrun pintxo artean, hasi zuen atzo prentsaurrea Jokin Bildarratz Tolosako alkatea. Halaxe ere, pintxo artean, hasiko da gaur Tolosako Babarrunaren Astea.

Tolosako Babarrunaren II. Pintxo Lehiaketa da aurtengoa, baina «iazkoa baino bereziagoa». Joan den urtean pintxo berdinak aurkeztu zituzten ostalari guztiak; aurten, berriz, hainbat irizpideri jarraitu arren, bakoitzak bere pintxo egiteko aukera izango du. «Babarrunarekin zer egin daitekeen ikusteko joko polita izango da lehiaketa hau».

11 ostalarik eman dute izena, eta horietako batzuk ziren atzoko agerraldian. Aurrerapean bat egin zuten: «Babarrunak eta txokolaterearen ura nahastu ditugu, pintxo gozoa egiteko. Baina ez nuke esango postrea denik, aperitibo baizik», zioen, besteak beste, Gorrotxategiko Rafa Gorrotxategik. Dena den, guztiak «sekretupean» gorde zituzten errezeta eta pintxoaren nondik norakoak. Gaur, 19:00etan, argituko da sekretua, kafetegia, jabetxe eta tabernetako barra gainean.

Tolosako bost elkartetako ordezkariak osatuko dute lehiaketaren epaimahaia: Urdiña-txiki, Gure Kaiola, Ero-etxe, Iurre eta Tolosano, hain zuzen

## Babarruna jan, txapela jan...tzi

VI. Txapela nork ondoen jantzi Lehiaketa jokatu dute bihar goizean, Txinparta Elkarrekin antolatuta



Jokin Bildarratz alkatea, Carla Mendizabal eta Manuel Tolosa irabazleak eta Txinpartako Juan Bautista Aranzabe, iaz. D.GIBELALDE

ere. Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Elkarrekin, berriz, pintxoak egiteko ostalariek Tolosako Babarruna erabili dutela ziurtatuko du.

Bi mailatan lehiatuko dira parte-hartzaileak; izan ere, alde batetik pintxorik onena sarituko da eta, bestetik, pin-

txoren aurkezpenarik onena. Bi aukeretan, pintxo hotza ala beroa izan daiteke. Bestalde, mokadu batean jateko modua izan behar du, eta osagai guztiak jangarriak izan. Ogi gainean, edo ontzi edo tresna baten gainean aurkeztu ahal izango da.

Tolosako Babarrunaren Astean ohiko bilakatu da Txinparta elkarrekin antolatzen eta Boinas Elosegui-k laguntzen duen Txapela nork ondoen jantzi Lehiaketa. Aurten ere ez du hutsik egingo; etzi jokatu da, 11:30etik 13:00etara, elkarrekin bertan (Erremontari, 32).

Txinpartakoen esanetan, «estilo guztiak balekoak dira». Parte-hartzaileek txapela kendu eta jantzi egin beharko dute epaimahaikideen aurrean. Emakumezkoek edozein koloretako txapela eraman dezakete; gizonezkoek, berriz, urdina edo beltza soilik.

Gizonezkoen mailan lehen-dabiziko hirurek jasoko dute saria, eta emakumezkoen mailan ere bai. Gainera, parte-hartzaileak gazteena eta beterruena ere sarituko dituzte.

Izen-ematea doakoa da, eta 943 67 25 24 telefono zenbakian eta administracion@boinaselosegui.com posta elektronikokoan egin daiteke. Lehiaketaren egunean ere eman daiteke izena, elkarrekin.

1972ko apirilaren 3an jokatu zen lehen txapelketa, eta Miguel Azaldegik irabazi zuen. ◀

Epaimahaia gaur bertan, pintxoak ikusi eta dastatu ondoren, emango du emaitzaren berri. Irabazleek Babarrun Astea amaitzean, igandean, jasoko dute saria, Ferialekuko bazkarian. Eta herritarrek pintxoak dastatzeko aukera izango dute, asteburu osoan.

### PINTXO LEHIAKETA ▶

Hauexek dira gaurko pintxo lehiaketan parte hartuko duten ostalariek eta tabernariak.

- ▶ Amets jatebxea.
- ▶ Astelena jatebxea.
- ▶ Iruña taberna.
- ▶ Egoki taberna.
- ▶ Elurra taberna.
- ▶ Fronton taberna.
- ▶ Gorrotxategi pasteleria-konfiteria.
- ▶ Ikatz taberna.
- ▶ Irrintzi taberna.
- ▶ Laier taberna.
- ▶ Orbela taberna.

### BESTE EKITALDIAK ▶

Igandea bitarte, ekitaldiz beterik datoz egunak. Era guztiakozkoak izango dira; hauexek dira, baina, Tolosako Babarruna oinarri hartuta egingo direnak:

### EKOIZLEEN VII. LEHIAKETA

**Eguna.** Etzi, larunbata.

**Lekua.** Trianguloa.

**Ordua.** 08:00etatik 13:00etara. 12:00etan babarrun jatea izango da, eta 12:30ean sari banaketa.

**Parte-hartzaileak.** 20 ekoizle.

**Prestaketa.** Roberto Ruizek (Fronton jatebxea) eta Angel Oruesagastik (Orue erretegia) prestatuko dituzte jendaurrean.

**Enkantea.** Babarruna onenaren lakari bat enkantean jarriko dute.

### AZOKA BEREZIA

**Eguna.** Etzi, larunbata.

**Lekua.** Trianguloa.

**Ordua.** 09:00etatik 13:00etara.

**Parte-hartzaileak.** 30 salmenta puntu.

**Produktuak.** Tolosako Babarrunak, lbarrako piperrak, odolkiak, azak, gazta, ardoa, sagardoa...

### VIII. LEHIAKETA GASTRONOMIKOA

**Eguna.** Igandea.

**Lekua.** Ferialekua.

**Ordua.** 08:00etatik 14:30era.

**Parte-hartzaileak.** 18 bikote.

**Epaimahaia.** Martin Berasategi sukaldaria, Deniako (Alacant) Octavius jatebexkoa, eta beste hainbat. **Herri bazkaria.** 14:30ean, leku berean. Txartelak salgai, 18 eurotan, Gure Kaiolan, 19:30etik 21:00etara; eta igandean Ferialekuan, 10:00etatik aurrera.

POLITIKA ▶

## ‘2.500 tolosar desagertuta? Eman hitza herriari’ lelopean manifestazioa deitu dute iganderako

«Kolore guztietako tolosarrak» gonbidatzen dituzte, isila izango da eta 19:30ean abiatuko da

ERREDAKZIOA

Aurreko udal hauteskundeean Tolosa Bizirik herri plataformak lortu zituen 2.500 botoak udaletxean ordezkaritza politikorik gabe gelditu zirela eta, hainbat herritar jendaurrean atera zen duela aste batzuk egoera hori salatzeko eta konponbidea eskatzeko. Arazoa bideratzeko egin dituzten eskaera guztiei udal agintariak («entzungor») egin dietela diote eta 2.500 tolosar horien ordezkarikari politikoentzat «udaletxeko atek itxita» jarraitzen dutela.

Egoerak urtebete luze iraun duela ikusita *2.500 tolosar desagertuta?* kanpaina jarrai zuten martxan sinadurak biltzeko eta 1.200 baino sinadura gehiago udaletxean aurkeztu dituzte, «bidegabekeria honen konponbide eskaerari babesa emateko».

Manifestazio isila

Herritar horiek ez dutela etsiko eta urratsak ematen jarraituko dutela adierazi dute «tolosar guztien ahotsak udaletxean lekua izan arte» eta manifestazio



Jende asko bildu zen manifestaziorako deia egiteko. HITZA

isilerako deia egin dute igande honetarako, azaroak 21, 19:30ean Triangulotik abiatuta *2.500 tolosar desagertuta? Eman hitza herriari* lelopean. Isilik joan arren («inoiz baino argiago») eman nahi dute meza: «Tolosar guztiek, kolore guztietako tolosarek, ideia guztiek behar dutela lekua udalgetxean, eta Tolosako herriak deon beharra duela».

Deialdi irekia egin nahi dute eta ez soilik balioabetutako botoa eman zuten tolosarren-tzat. Sinadura bilketan bezala, egoera honekin desadostasuna agertu nahi duten guztientzat irekia izango da manifestaldia, eta bertan parte hartzea gonbidatu nahi dituzte tolosar guztiak, «kolore guztietako tolosarrak».

Datorren igandean 19:30ean Triangulora joateko deia egingo dute guztiak.

KULTURA ▶

## Emeterio Arrese gogoan heriotzaren urtemugan

Hitzaldia eskainiko dute Juan Garmendiak eta Jose Mari Iturralde udalgetxeko batzar aretoan 19:30ean; euskal literaturan «leku handia» izan zuela diote

JOXEMI SAIZAR

Emeterio Arrese literaturgile eta euskaltzalea hil zela 50 urte bete direla eta, gaur 19:30ean berari buruzko hitzaldia antolatuko du Tolosako Udaleko Euskararen Batzarreko udalgetxeko batzar aretoan. Juan Garmendia Larrañaga etnologoa eta Jose Mari Iturralde Uria idazlea, biak tolosarrak, izango dira hizlariak.

Garmendiak ezagutu zuen Arrese eta harremana izan zuen. Tolosako orroigarriak aipatuko ditu hitzaldian: Felipe Dugiols, Patricio Orkaiztegi eta Eduardo Mokoroari eskainitako lanak aipatuko ditu, besteak beste. Kale kale eta bi zumardietan asko paseatzen zuela gogoratzen du. «Bizitza hiru hankaren gainean zuten jarrita: ama, natura eta jaioterria», dio etnologoak. Arrese hil zenean, Ibarreak etxean bazenoroitarria, baina ez Tolosako jaiotetxean. Hori idatzi zuen Garmendiak eta ondoren jarri zuten. Gaur egun etxe hori botata dago —kale Nagusian, Longaron dendaren ondoan—, baina berriro altxatzerakoan jarriko dutela espero du Juan Gar-



Emeterio Arrese Bauduer. HITZA

mendiak. Arreseren ama 1903an hil zen, bera La Habana zegoela. «Hildakoez bakarrik dakiten bezala» hitz egingo ziola idatzi zuen Arresek. Errepublikarra izan arren, abertzale eta karlista askorekin ondo moldatzen zela dio etnologoak. San Joan egunean meza nagusira joaten zela ere gogoratzen du. «Azken denboraldia lurreamendin pasatu zuen, hil arte, eta Salvatore Mitxelena idazlea eguneroko bisitatzen zuen», eranstean du.

Euskal literaturan «leku handia» duela uste du Jose Mari Iturralde. «Tolosako poetarik handiena da, *Lizardi zarautzarr* zela kontuan hartzen badugu», dio. Bere pertsona eta, batez ere, obra aztertuko du gaurko hitzaldian Iturralde. «Kritiko askok baztertu egin dute. Gerra ondorengo garai zailak ezagutu zituen», dio. Batez ere azken liburua —*Olerki berritze*— aipatzen du: «Lagunek animatuta idatzi zuen zahartzaroan, aurreko olerkiak berrituz eta olerki berriak eginenez. Batzuen iritziz, poesia zaharrek freskotasuna galdu zuten». Ama eta Euskal Herria omen zituen bi maitasunik handienak. «Obsesionatuta zegoen amarekin».

Umore zorrotz oneko gizona, sagardoazalea omen zen, errentista, bitxia —garai hartan Ameriketara hainbeste aldiz joatea ez zen arrunta—, diru asko irabazi eta galdutakoa. Eskolapioekin oroitzen txarra omen zuen gazte denboran, baina adinarekin elizara hurbildu egin zela dio Iturralde. Donostian urte batzuk bizitu ondoren, azken urteetan Tolosara itzuli zen.

## Pilota eta ‘Leidor’

Tolosako kale Nagusian jaio zen Emeterio Arrese Bauduer 1869ko martxoaren 3an. Haurtzaroa Ibarren pasatu zuen, Madariaga jauregian. Ameriketara askotan joan zen: Mexiko, Kuba, AEB eta Argentinan ibili zen abentura bila. Pilota jokoaren zabalzaile nagusia izan zen han, pilotalekuak irekiz.

Pedro Mari Otaño bertsolari zizurkildarra ezagutu zuen 18 urte zituela eta harekin euskaltzaletu zen. Amerikan idatzi zituen olerki gehienak, denak euskaraz. Hiru libururu ditu: *Nere bidean*, *Txindor*, eta *Olerki berritze* —aurrekoen bilduma berrituta—. Bere idazlan batzuei musika jarri zien Eduardo Mokoroa musikari tolosarrak eta *Sentierak*, *Zara* eta *Leidor* operak egin zituen horrela. Ama, haurrak eta natura dira erabiliko gai nagusiak.

1954ko apirilaren 4ean hil zen Tolosan, 85 urterekin. ◀

ZINE-KLUBA ▶

## Cannes-en izandako ‘Machuca’ filma

Txilen kokatutako *Machuca* filma eskainiko du gaur zineklubak 21:30ean Leidorren. Andres Wood da zuzendaria. Auzo aberats batean eta behartsuen txaboletan bizi diren bi haurren historia kontatzen du. Eskola bateko zuzendariak haur behartsuak integratu nahi ditu eta bi haurrak lagun egingo dira.

MENDIA ▶

## Igandeko irteeran beste aukera jarri dute Alpinokoez

Igandean Errioxara mendi irteera antolatuko du Alpinokoez. Matute herriari abiatu eta bost orduko ibilbidea egin ondoren herri berean bukatuko dute. Ibilbide «erraza eta polita» omen da, Peña Tobia (1.059m) eta Cerro Peñalba igoz 1.203m). Orain beste aukera eskaintzen dute Alpinokoez: mendizaleak Matuten utzi ondoren, nahi dutenak Valvanerako monastegira joango dira autobusez. Bisitaren ondoren hamaiketako egin eta Matutera itzuliko da mendizaleak jaso eta Anguianora bazkaltzera joateko. Irteera 07:00etan izango da, Gorosabeletik eta prezioa, 10 euro (bazkideentzat 8). Izen-ematea elkartean: Gudari 5 behe (943 65 27 89) 19:00etatik 21:00etara.

## TELEFONOAK ▶

## LARRIALDIAK

## ▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23

**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61

**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34

**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29

**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Lizartza.** Medikua: 68 20 77

**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

**Villabona-Aiztondo.**

Anbulatorioa: 00 69 70

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

## GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

## EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Bronte C. Korreo kalea 20

(Tolosa). 943 67 60 13.

Plaza M. Elbarren 36 (Leitza).

112.

## TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_publi@tolosaldeko  
hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko  
hitza.info

**Anoetaldea.** 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarraldea.** 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

**Leitza.** 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko-hitza.info

## iragarki laburrak ▶

## SALGAI

**Taberna salgai.** Gazte taberna

salgai, Tolosan. Deitu: 660 17

81 83 telefonora.



## Asteasura doan errepidea noiz konpondu zain

**ALKIZA** ▶ Alkizatik Asteasura doan errepidearen egoera ez da batere ona. Alkizako Udaletik azaldu bezala. Bere garaian, Foru Aldundiko teknikariak izan ziren bidea ikusten, baina gero ez dute ezer egin. Udalaren kezu berrien aurrean, Foru Aldunditik argazkiak eskatu zituzten. Alkizako Udalak argazkiak atera eta bidali ditu, eta orain erantzunaren zain daude. HITZA



## Ikasle Egunerako karpa erraldoia muntatzen ari dira

**VILLABONA** ▶ Larunbatean izango den Ikasle Egunerako ekitaldirik jendetsuena gauean egingo den kontzertu erraldoia izango da seguruen. Horretarako, bere neurriko karpa muntatzen ari dira asteleheneetik. 80 metro luzeran, 25 metro zabalera eta 10 metro hartzen dituen alturan. Antolatzaileek zazpi mila pertsona inguru espero dituzte egun horretarako. I. GARCIA

## VILLABONA ▶ KULTURA

# 'Decamerone-a' obra eskainiko du Ados Teatroak bihar Gurean

Ados Teatro taldeak eskainiko duen antzezlanaren Boccaccio idazle italiarraren liburu ezagunean oinarritzen da

IMANOL GARCIA

Antzerkia itzuliko da Gurea aretoko eszenatokira bihar gauean. Oraingo honetan, Ados Teatrotoren *Decamerone-a* obra ikusi ahal izango da 22:30ean hasita. Erdi Aroko Boccaccio idazle italiarraren obra garrantzitsuena taularatzten da ordu eta erdi irauten duen komedia honetan, ikusle-go helduarentzat zuzenduta.

Garbi Losada eta Jose Antonio Vitoria dira antzezlanaren egileak eta Garbi Losadak berak zuzentzen du. Bost aktore izango dia eszenatokian: Javier Barandiaran, Josean Bengoe-txea, Aitor Bernardino, Alvaro Garaialde eta Xabi San Sebastian. Gurean ikusiko den bertsoia euskaraz izango da. Sarrerak bederatzi euro balio ditu eta gazte txartelarekin zazpi euro.

Antzezlanaren istorioak 1348. urtera eramaten du ikusilegoa. Urte horretan, izurriak Florentzia suntsitzen du. Egoera horren aurrean, «heziketa



*Decamerone-a* antzezlanaren une bat. HITZA

onoko, zorioneko eta zuhurra» diren lagun talde bat hiri inguruko etxe batean babesten da gaixotasuna alden du arte. Bitartean, denbora pasatzeko

txandaka ipuin gatzdun eta alai sorta bat kontatzea erabakitzen dute, eta horrela barrea erabiltzen dute heriotzari aurre egiteko.

## ADUNA ▶

## Eguraldiari buruzko solasaldia Kultur Astean

Andoni Aizpuru eta Pello Zabala eguraldi gizonak arituko dira 20:30ean hasita

I. GARCIA

Adunako Kultur Astea egitarauaren erdira iritsiko da gaurko solasaldiarekin. Jendeak eguneroko hizketaaldietan aipatzen duen gai nagusienetako bat jorratuko da: eguraldia. Eta horretarako bi eguraldi gizon ezagun gonbidatu dituzte antolatzaileek: Andoni Aizpuru eta Pello Zabala. Solasaldia Aitor El-duaien kazetariak gidatuko du eta izenburua *Eguraldiaren gorabeherak* izango da. Hitzordua kultur aretoan izango da, 20:30etik aurrera. Seguruena, hurbilduko den ikuslegoren batek galdetuko die aurtengo San Martinen inguruko udatoxoak zergatik ez gaituen bisitatu.

Antolatzaileek balorazio oso positiboa egiten ari dira orain arteko ekitaldiei dagokionez. Esaterako, asteleheneko kirolarian arteko solasaldian eta astearteko diapositiba emanaldian jende ugari bildu zen, kultur aretoa bete arte.

IKAZTEGIETA ▶ HEZKUNTZA

# HITZA, eskolako haurren irakurmena bultzatzeko

Ikaztegiatako eskolako haurrek eskualdeko egunkaria erabiltzen dute irakurmena landu eta bultzatzeko



Ikaztegiatako eskolako haur bat HITZatik aukeratutako albistea irakurtzen. MADDI SOROA

MADDI SOROA

Iaz, irakurmena lantzeko proiektua jarri zuten abian eskualdeko eskola txikiek. Proiektu honen helburu nagusia, haurren artean irakurmena landu eta sustatzea nagusia. Haurrek irakurtzeko errezetasuna izateaz gain irakurmenaren garrantziaz jabetza eta irakurtzeko ohiturak izatea, alegia.

Ikaztegiatako eskolaren kasuan, testulibururik erabiltzen ez zutenek, HITZA eta beste zenbait egunkari erabili zituzten irakurmena lantzeko. Irakasleak albistea ekartzen zuen gelara eta irakurri ondoren, haurrek ariketak egiten zituzten irakurritako albistearen inguruan. Kasu gehienetan, albis-

tea aztertzea izaten zen ohikoenak; horrela, albistearen elementuak —zer, noiz, non, nola, zergatik— identifikatu, argazki oina asmatu... eta albisteen inguruko osagaiak lantzeko. Modu honetan irakurketa bultzatu eta kritikoak izaten irakastea zen helburua, aldi berean errealitateaz jabetuz.

Irakurmena landu eta sustatzearen proiektua urte beterako prestatuta zegoen hasiera batean, baina haurrak gustura aritu zirenez, aurtien ere gauza bera egiteko eskatu zieten irakasleei. Aurtien, ordea, bederatzita eta hamabi urte bitartekoak dira proiektua jarraitzen duenak. Irakasleek, HITZA edota beste hedabideren batetik gustuko albistea aukeratu eta gelara ekartzen dute goizero. Haur ba-

koitzak, dagokion albistea irakurri ondoren, denen artean komentatzen dute albistearen inguruan pentsatzen dutena. Egunean irakurritako albisteen artean bozketa egin eta garaile ateratzen den albistea gelako kortxoan zintzilikatzen dute. Haurrek, mota ezberdinetako gaiak aukeratzen dituzte, zientzia arlokoak dituzte gustuko batzuek; kirol arlokoak, beste batzuek. Hala ere, aukeratutako albisteen artean mota guztietako gaiak daude.

Inma Delgado, irakaslearen hitzetan, haurrak oso gustura daude eta «ekimen honen bitartez, eguneroko bizitzan irakurtzeko ohitura zabaldu nahi dugu ikasleen artean; irakurketa ez dela soilik eskolako lana ohararazi nahi diegu».

ORENDAIN ▶ HERRI PLATAFORMA



Orendain abian plataformako kideak udaletxe atarian. HITZA

## Herri plataformaren bilerak, kalean

Orendain abian plataformak bilerak egiteko giltza eta lokalik gabe gelditu da

MADDI SOROA

Orain dela bi hilabetez geroztik, Orendain abian herri plataformako hautetsiek kalean egin behar izaten dituzte bilerak. Bernardino Otamendik, plataformako buruak adierazi duenaren arabera «PNV-EAren izenean aurkeztu ziren ordezkariak udaletxeko ateari zerraila aldatu eta hautetsiok ditugun eskubideak urratzeaz gain, gure egin beharrak bete zeko giltza eta lokalik gabe utzi gaituzte». Orendain abian herri plataformako kideek adierazi dutenaren arabera «ekintza honekin argi geratu da, lehen hitzez esan ziguten bezala, ez gaituztela herriak aukeratutako hautetsi bezala onartzen, eta PP-PSOren lege faxistaren aurrean burua makurtu egiten dutela beti bezala».

Plataformako kideek zera galdetzen diote heuren buruari egoera honen aurrean:

«Hau al da herriaren hitza errespetatzea? Hau al da herriaren borondatea onartzea?». Galdera hauetaz gain, ordea, zera adierazi dute: «Gure herria zapaltzen duten faxistek aurrera eramandako legea aprobetxatuz hartu du zue Udala zuen esku».

Gauzak horrela, eta gertatutakoaren ondorioz, honakoa helarazi nahi izan diete Orendain abian plataformako kideek Udalean dauden alderdiei: «Egoera honen aurrean, dagokizuen pausoak ematea eskatzen dizuegu, lapurtutakoa dagokionari itzuliz». Honetaz gain, «lapurtutakoa dagokionari itzuliz dena konpondua» legokeela baieztatu nahi izan dute herri plataformako kideek.

Hala ere, esandakoak esanda, ideia garbi eta zuzena helarazi nahi izan du Orendain abian herri plataformak, «herriaren hitza errespetatu» ideia, hain zuzen ere.

## www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albistek, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

zorion agurrak bertan:





## OREXA ▶ KULTURA

# Ohiturari jarraituz, Orexatik Uitzirako ibilaldia egingo dute

Kultur Hamabostaldiaren ondoren egin ohi dute; aurtengo ekitaldien emaitzekin pozik agertu dira antolatzaileak



Uitzitik Orexarako ibilaldia egin zuten orain bi aste herritarrek. HITZA

## INIGO TERRADILLOS

Urtero legez, aurtun ere Kultur Hamabostaldiaren ostean eta Uitzitik Orexarako ibilaldia egin eta gero, Orexatik Uitzirako ibilaldiaren txanda da.

Igande honetan izango da berriro ere bi herriak batuko dituen ibilaldia. Egundua polita pasatzeko aukera da, ibilaldia eta gero bazkarian bilduko baitira animatzen direnak eta musika ere ez da faltako.

Bestalde, aurtengo Kultur Hamabostaldiaren inguruan pozik agertu dira antolatzaileak. Berrikuntza ugari izan ditu aurtengoak; batetik egun gehiagotan antolatu dituzte ekitaldiak eta erabaki ona izan dela aipatu dute. Egitarauaren aldetik, berriro, era guztietakoak izan dira eta jende asko gerturatu da herrira.

Erdi Aroan oinarritu dute hamabostaldia eta bereziki azken eguneko herri afarian nabarmendu zen hori garaiko jantziekin moztorturik joan baitzen jendea. Antzerki txiki bat prestatu zutela ere aipatu behar da, afarian bertan ikusizun polita eskaini zutelarik herriko lagunak.

Herritarren parte-hartzea eskertu dute Udaletik, zerikusi handia izan baitu gauzak ondo ateratzearrekin.

## BERASTEGI ▶

### Hitzaldiak gaur eta bihar Kultur Astearen baitan

Berastegiko Kultur asteak aurrera darrai, eta gaur *Artzaik munduan* hitzaldia izango da Josu Iztuetaaren eskutik. Bihar, berriro, 20:30ean Mikel Mindegia aizkolariak erakustaldi txikia egin ostean hitzaldia emango du herri kirolen inguruan. Bi hitzaldiak Berastegiko Muñagorri herri eskolako gimnasioan izango dira.

## IBARRA ▶

### 'Yo soy Sam' pelikula gaur zine-klubean

Ostegunero bezala, gaur Ibarrrako Gaztetxean 21:45ean zine-kluba izango da. Jessie Nelson zuzendariaren *Yo soy Sam* pelikula ikusteko aukera izango da. Drama sentimental hungigarri honetan, gutxitu psikiko batek bere alabaren kustodia lortzeko tribunaletara jo du. AEB-ek ez dela horretarako gai esaten baitute.

## BELAUNTZA ▶



Ardo dastaketa egin zuten Heredad Ugarte upeltegian. HITZA

### Biasteriko bodegara Belauntzatik

Pasa den igandean bodega irteera antolatu zuen Belauntzako Udalak. 23 lagun animatu ziren Biasterira eguna pasatzera. Instazioak ikusi, ardo dastaketa egin eta bodegan bazkalduta zuten. Ederki pasa zuten eta gustura bueltatu ziren Belauntzara.

## iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

### ETXEBIZITZAK

**Aia.** Naturaren erdian, bi logelako apartamentu berriak, garajearekin, eta duplex etxebizitza garajearekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Alegia.** Etxebizitza berriak bi eta hiru logelakoak salgai. Mandio. 669 87 19 09.

**Asteasu.** 2 solairu, 3 logela, 2 bainu, sukalde-sala ekipatua, terraza 50 m<sup>2</sup>. 669 87 19 09.

**Berrobi.** Etxebizitza, 75 m<sup>2</sup>, bi logela, 23.800.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Berrobi.** 90 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, sukaldia, igogailua, 12 m<sup>2</sup>-ko ganbara eta garaje marrarekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Berrobi.** 90 m<sup>2</sup>. 41.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Corella.** Etxe atxiki rustiko berriak, konstruktorek zuzenean kudeaturikoak. Porxearekin, 2 eta 3 gelakoak, bainua eta sukaldetz

hornitua. 800, 1.000 eta 1.200 m<sup>2</sup>-ko terrenearekin. Piszina eta guzti. Eta gainera batzuk, tximeneta dotorea. 13.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Errazu eta Goizuetan** bordak salgai. Mandio. 669 87 19 09.

**Ibarra.** Julian Gaiarre kalean 3 logelako etxebizitza salgai. Bizitzera sartzeko prest. Polita. Mandio. 669 87 19 09.

**Ibarra.** Euskal Herria kalean, 3 logelako etxebizitza, baratzarekin. 22.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Irura.** 100 m<sup>2</sup>, 3 logela, dena kanpoalde, sala, 2 bainu, igogailua, kalefazioa... Mandio. 669 87 19 09.

**Jaca.** 3 logelako apartamentoa salgai. Mandio. 6698719 09

**Jaca.** 110m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, 4 logela, trastelekua eta garajearekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Lerin.** 70 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza berriak, 25 m<sup>2</sup>-ko porxearekin, ura eta argia jarriak eta 3.000 m<sup>2</sup>-ko lur saila. Mandio. 669 87 19 09.

**Ordizia.** 70 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. 3 logela, sukaldia, bainugela, sarrera eta igogailuarekin. 29.870.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Ordizia.** Etxebizitza berriak, familia bakarrekoak. Eraikitako azalera: 242 m<sup>2</sup>. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Santa Klaran 111 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai, 4 logela, egongela handia 25 m<sup>2</sup>-koa, igogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Korreo kalean etxebizitza batzuk, 70 m<sup>2</sup>-ko duplexa salgai. 15 m<sup>2</sup>-ko terrazarekin, teilatu berriua, berogailuarekin. 26.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Larramendi kalean 65 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, sukaldia altzariez hornitua, kanpoaldera begira, 2 logela, igogailua eta trastelekua. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Foru etorbidean, leku hoberenean, erabat kanpoaldera, atikoa, 85 m<sup>2</sup> + 50 m<sup>2</sup>-ko terraza. Bista ederra. Sukaldia, 3 gela, egongela, bainua, trasteroa, berogailua eta igogailuarekin. 68.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Foruen etorbidean 210 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai, 5 logela, berogailua, igogailua eta 2 bainugela. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Iurre auzoan. 33 m<sup>2</sup>-ko txokoa, 10.000.000 pta, tarpetantian. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Iurren, txaleta bi lorategirekin, 3 logela, bizitzera sartzeko. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Iurre. 2 logela, gela, sukaldia, bainua, dena erreformatua.

Mandio 669 87 19 09.

**Tolosa.** Foruen ibiltokia, erabat berritutako etxebizitza, 2 bainugela, igogailua, egongela, 3 logela, sukaldia eta gela bat bulegorako erabilgarria. 130 m<sup>2</sup>. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Korreo kalean bizitzera sartzeko berritutako apartamentua salgai. 29.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Korreo kalean, 2 gelako etxebizitza, polita, sartzeko prest, 29.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Korreo kalean, bi logela, berogailuarekin. 29.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Amaro auzoan, etxebizitza salgai 80 m<sup>2</sup>-rekin, igogailuarekin, 37.500.000 - 40.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Larramendi. 90 m<sup>2</sup>, 3 logela, 2 bainu, sala handia, garajea 2 autorentzat. Mandio 669 87 19 09.

**Villabona.** Etxebizitza 60 m<sup>2</sup>, bi logela, bainugela eta sukaldiarekin salgai. 23.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Villabona.** Kale Nagusian 78 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, berritzeko. 3 logela, altzariz hornitutako sukaldia eta egongelarekin. 25.800.000. Mandio. 669 87 19 09.

### NEGOZIOAK

**Sagardotegiak.** Funtzionamenduan dauden sagardotegi batzuk salgai, Usurbil eta Oiartzun inguruetan, etxebizitza eta guzti. Mandio. 669 87 19 09.

### LOKALAK

**Tolosa.** Nafarroa etorbidean 71 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. Mandio.

669 87 19 09.

**Tolosa.** Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Errementari kalean lokal komertziala alokairuan. 70.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** 428 m<sup>2</sup>-ko pabilio berria, ate bikoitzarekin eta sardibe egokioa, saihesbidearen ondoan. 16.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Lokalak salgai, Laskurain kalean, Rondilla kalean, Errementari kalean, Trianguloan eta Nafarroa etorbidean. Mandio. 669 87 19 09.

**Villabona.** Lokal berria, 35 m<sup>2</sup>, sukaldetz hornituta, terrazarekin. 16.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

669 87 19 09.

### LURSAILAK

**Nekazaritzarako.** 10.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai nekazaritzarako. Mandio. 669 87 19 09.

LEITZA ▶ GIZARTEA

# Herritarrak kezkatuta azaldu dira Astibiaren atxiloketarengatik

Batzar berezia deitzea, barterako; bihar 2 orduko geldialdia eta manifestazioa egitea erabaki dute han bildutakoek



Astearte iluntzean, azkenik, udaletxeko 1. go solairuko gelan egin behar izan zuten asanbladan, Igor Astibiaren atxiloketaren inguruko informazioa eman zuten, besteak beste. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Astearte iluntzean burutu zen Igor Astibia, egun horretako goizaldean beste 15ekin batera atxilotu zuten leitzarraren egoeraren berri emateko deituta zegoen asanblada eta hurrengo egunetarako zenbait protesta deialdi egitea erabaki zuten, udaletxeko beheko gela lepo bete eta eskaileretaraino, han bildu ziren 150 herritar

baino gehiagok. Haien artean senide, lagun, herritar... eta hainbat herri-ordezkarri ere bertan ziren.

## Geldialdia eta manifestazioa

Horrela, atzo gauerako udal-txean batzar berezi eta presazkoa egitea proposatu eta erabaki zen —atzo erredakzioa is-terako deialdia egina zegoen udaletxean, puntu bakar mo-

dura «Igor Astibiaren atxilotetari buruzko Udalaren adierazpena», azaltzen zelarik, betiere batzarraren urgentziakoz izaera onesten bazen; dagoneko burututa izanen da— bilkuran bertan parte hartu zuten hainbat herri-ordezkariren bermeaz. Bestalde, ostiralerako ere, biharko beraz, bestelako mobilizazioetarako deialdia egitea erabaki zuten: bi orduko geldialdia alde batetik, 12:00eta-

tik 14:00etara, eta manifestazioa bestetik, 12:00etan.

Han bildu zirenen kezka nagusia, ordea, inkomunikatuta dauzkaten atxilotuen egoera zen, «epe horretan atxilotuek torturak jasateko duten arrisku ziur eta behin eta berriz frogatua», agertu baitzen haien ahotan, eta senideekiko inolako berririk ez izateak eragiten duen ezinegona ere agerian gertatu zen. Bestalde, herritar honen atxiloketa inolako frogarik gabe egin izanak ere «zantpaketa eta nahi dutena egin dezaketelako sentsazioa» eragiten ziela adierazi eta salatu zuten behin eta berriz, batek baino gehiagok eta komunikabide desberdinetan azalduz «herrian bertatik ere adierazitako hainbat gezur eta irain jasanezinak», direla adierazi. Astearteko operazioaren irakurketa politikoari ere erreparatu zioten han bildutakoek, «igandean ezker abertzaleak egin zuten proposamen berriari erantzun gisa», jo zuenik ere izanez.

## Jazarpena

«Bilera bukatzen denean, manifestazioa egin ahal izanen dugu?» galdetu zuten batek. Izan ere, asanblada herriko plazan egitekoa zen hasieran, baina segurtasun indarrak bertan ziren, sakabanaketarako materialez hornituta eta «lehendabizi 19naka egoten» utziko zutela esan omen zuten arren, gero hori ere debekatu egin zuten, hori ikusita, azkenik leku itxi batean eginez asanblada informatibo hori. Asanblada bukatu eta «zain» zeudenen tartetik igaroz, jendeak handik atera ahal izan zuten.

Azken berrien arabera, bali-teke, asteartean atxilotutakoetatik batzuk, laister epailearen aurrera deklarazio hartzera eramatea, inkomunikazio epea azkenera arte agortu baino lehen. Bitartean, Iruñeko Txantrea auzoan beste gazte bat atxilotu zuten atzo arratsaldetan, operazio honekin berarekin lotuta dirudienaz.

LEITZA ▶

## Zinema denboraldiaz arduratzeko proposamenak

Emanaldien ardura hartzeko prest izanik, proposamenak egiteko epea zabalik

J. ASTIBIA

Neguan zehar zinema emanaldiak egiteko ardura hartuko luketen banako edo taldeek, izena emateko epea zabalik dute, azaroaren 26a, hileko azken ostirala, eguerdian, 12:00ak arte. Interesa dutenek udaletxeko bulegoan egin behar dute izen ematea, egun hori baino lehen, beraz. Baldintzak betetzen dituztenen artean, «zoketatuko da zinearen kudeaketa», jakitera eman dutenez.

Gai honen inguruan Udalak plazaratu duen bandoan ageri diren oinarrien arabera, zineko gestioaz harduratu denak, abendutik maiatzera, eta bestelako ekitaldirik ez dagoen bitartean, ostiral eta igandetan proiektatu beharko litzuzke filmak. Gehienez ere eta Udalak bere gain hartuko duen 9.000 euroko aurrekontua errespetatuz, berak aukeratu eta eskatuko ditu filmak; horien muntaia, proiektzio eta desmuntaiar arduratuko da; berogailuaren martxa eramanen du; eta proiektzioaren publikitateaz eta takilako lanare ere egin beharko ditu.

Hain zuzen ere, sarreretatik aterako den sosa, taldearentzat izanen da. Edozein moduz, hautagaiak, «bana-koak edo taldeak aurkez daitezke», Leitzan bizi direnak izan behar dira eta ezinbesteko da, «zinearen inguruko berri izan eta proiektorearen funtzionamendua eta erabileraz jakitea, kide batek gutxienez», oharrak dionez.

hitza

# txokoa<sup>lagunen</sup>

## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZAREN harpidedun laguntzaile bazara, **ILARGIAREN SEKRETUA** filma, azaroaren 26an Tolosako Leidor Zinemaren ikusteko aukera izango duzu.

▶ DEITU ETA HAR EZAZU PARTE 10 SARREREN ZOZKETAN

**ZU IZAN ZAITEZKE IRABAZLEETAKO BAT!** 943 65 56 95  
(11:00-13:00 / 16:00-19:00)



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko azaroaren 18, osteguna ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzoketa, Aduna, Altsatur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzola, Anoeta, Ballarain, Belaurtza, Berastegi, Elduain, Herrialde, Iturza, Iturza, Larradi, Lezaburu, Lizarza, Orendain, Orreaga, Tolosa, Villabona, Zizurki.

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**BAI**

Eusko  
Jauriaritza,  
Kultura Salla

**BAI**

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

13

hotzena

10

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### ERAKUSKETAK

**Ibarra.** Jaietako argazkiak. Kultur Etxean.

**Tolosa.** Ana Jesus Ansorena. Zeramikak. Lanbroa tabernan.

**Tolosa.** Anselmo Elizalde. Koadroak. Fronton kafetegian.

### HITZALDIAK

**Aduna.** Andoni Aizpuru eta Pello Zabala eguraldi gizonak *Eguraldiaren gorabeherak* izenburuztat duen solasaldia egingo dute. 20:30ean Kultur Aretoan.

**Berastegi.** *Artzainak munduan.* Josu Iztueta-ren eskutik. 20:30ean eskolan.

**Tolosa.** Emeterio Arrese hil zela 50 urte direla-eta, Juan Garmendia Larrañaga eta Jose Mari Iturralde idazleen hitzaldia 19:30ean udaletxeko batzar aretoan.

**Tolosa.** *Magreb, gertuko Islama. XXI. mendeko erronkak.* Txentxe Rekondo eta Jabier Aixaren eskutik.

**Villabona.** Osasun etxeko medikuak *Osteoporosia, prebentzioa* hitzaldia emango du Biltoki elkartearen 17:00etan.

### ZINE-KLUBA

**Ibarra.** *Yo soy Sam*. Gaztekean 21:45ean.

**Tolosa.** *Machuca*. Leidor zineman 21:30ean.

# Liburuak ikusi eta erosteko

**TOLOSA ▶** Bihar zabaldu eta hilaren 28a bitarte egongo da Liburu Azoka San Frantziskon; liburu eta disko ugari eskainiko ditu %10eko beherapenarekin



Liburu Azokako postuak atzo goizean jarri zituzten San Frantzisko pasealekuan. LEIRE MONTES

### JOXEMI SAIZAR

**L**aster Durangoko Azoka egongo diren liburu eta disko gehienak Tolosan bertan ikusi eta erosteko aukera izango da datozen egunotan %10eko beherapenarekin.

Euskal Liburu Azoken Batza-

rrak antolatuta, urtero bezala, San Frantzisko pasealekuan izango da Liburu Azoka. Euskal gaia jorratzen da batez ere egongo diren liburu eta diskoetan. Argitaletxe desberdinetako hemeretzi postu izango dira guztira. Haurrentzako liburuek ere toki garrantzitsua izango

dute. Aukerako liburu merkeak eta zenbait erakundetakoak ere izango dira. «Tolosan beti emaitza onak izaten ditugu, batez ere eguraldiak laguntzen duenean», adierazi dio HITZARI Asier Muniategi antolatzaileak.

Azken azoketan nobela historikoa, sukaldaritzako libu-

ruak, euskal gaiak eta haurrenak direla salduenak erantsi du.

Liburu salduenen artean berriz, Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea* —euskaraz eta gaztelaniaz—, Julen Gabiriariaren *Han goitik itsasoa ikusten da*, Eider Rodriguezen *Eta handik gutxira gaur*, Fernando Morilloren *Gloria mundi*, Euskadi Sariak, Toti Martinez de Lezearen *El verdugo de Dios*, Dan Brown-en *Angeles y demonios* eta *El codigo da Vinci*, Planeta sariak, Perez Reverte-renak aipatzen ditu.

Diskoen artean berriz, Gari-zen *Zerotik*, Rupe Ordorikarena, Pamielak ateratako lau disko-liburuak —Atxaga eta Rupe, Xabier Lete, Oteizaren omenaldia eta Anjel Irigarai— aurkitzen dira.

### DATUAK ▶

**Gaia.** Liburu Azoka.  
**Egunak.** Azaroak 19-28.  
**Orduak.** 11:00-14:00 eta 17:00-21:00.  
**Herria.** Tolosa.  
**Tokia.** San Frantzisko pasealekua.  
**Postuak.** 19.

## ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Gorka Zabala Luluaga (Ibarra). Futbolearen onenak gaur 2 urte betetzen ditu. Zorionak ama, aita eta Nagoreren partetik.



### URTE ASKOAN

Mari Jose.  
Zorionak amabax.  
Nahiaren partetik.

**HITZA,**  
zorion agurren  
tarte

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 behea  
TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa  
LEITZA

Mesedez, argazkia bi  
egun lehenago ekarri.  
Mila esker!

**PILOTA**  
**PARTIDUAK**

aspepelota.com

**Berraondo - Apeztegia**  
**Tirapu - Errasti**

**EUGI - LASA III**  
**OLAIZOLA I - PEÑAGARIKANO**

**Tolosako Beotibar pilotalekuan**  
**Azaroak 19 ostirala**  
**gaueko 22:30ean**